



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EKONOMIA
ETA ENPRESA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE ECONOMÍA
Y EMPRESA



GARAPENA ETA NAZIOARTEKO LANKIDETZA MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Gaur egun, munduan zehar, desberdintasun sakonak daude garapen ekonomiko mailan. Horrela, herrialde gutxi batzuk ongizate maila handi batera iritsi dira; aldiz, beste askok, etengabe borrokatu behar dute herritarren gehiengoak eguneroko bizitzan pairatzen dituzten desberdintasun eta pobrezia aurre egiteko. Egoera larri horiek konpontzeko, gobernu kanpoko erakundeek, nazioarteko erakundeek eta instituzio publikoek baliabide ugari erabiltzen dituzte nazioarteko lankidetzan.

Garapena eta Nazioarteko Lankidetzako Unibertsitate Masterra, garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan profesionalak prestatzera bideratuta dago batez ere eta horretarako erreferentzia nagusizat berdintasuna eta pobrezia aurrekarako borroka, giza garapena eta iraunkortasuna hartzen dira.

Ikuspegi horretatik, helburua, kalitatezko lanbide prestakuntza eskaintzea da, diziplina anitzekoa eta beti ere garapenaren lankidetzaren esparruan egokitze pertsonala eta laneratzea hobetzeko asmoarekin. Horretarako, masterrean, garapen prozesuetan eragiten duten eta nazioarteko lankidetzaren baldintzatzen duten fenomeno askotarikoak aztertzen dira. Gai hauetan ibilbide luzea duten irakasleak aritzen dira, bai unibertsitatekoak eta baita lankidetzako erakunde eta antolakuntzetakoak ere. Gainera, programa osatzeko, nahitaezko nazioarteko praktikak burutu behar dira garapenerako lankidetzaren proiektuetan.

Unibertsitate master hau HEGO Institutuak eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatuak sailak bultzatzen dute.

SARBIDEA

Edozein graduiko titulu edo titulu baliokide (diploma, lizentzia, ingeniariaritzak, arkitektura).

Hautaketa prozesuan espediente akademikoa, esperientzia profesionala edo boluntariotzakoa (bereziki

kooperante modura Hegoko herrialde batean edo garapenerako GKE batean), motibazio gutuna eta hizkuntzen ezagutza baloratzen dira.

Atzerriko ikasleek gaztelania menderatu behar dute, hitzez nahiz idatziz.

IRTEERA PROFESIONALAK

Gobernu kanpoko erakundeak, nazioarteko erakundeak eta instituzio publikoak.

OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Bilbao).

Irakaskuntza mota:

Eskolan bertakoa.

Hizkuntza:

Gaztelania eta euskara.

Gutxi gorabeherako prezioa:

1.800-2.000 euro.

Egutegia:

Urritik ekainera, arratsaldez.

IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

Nahitaezko Gaiak 10 ECTS kreditu	Hautazko Gaiak 30 ECTS kreditu	Proiektuak / Ikerketa-lanak 20 ECTS kreditu	Guztira 60 ECTS kreditu
--	--	---	-----------------------------------

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

Nahitaezkoak:

- Munduko Ekonomia sistemaren egitura eta dinamika (6 ECTS).
- Nazioarteko politikak eta harremanak (3 ECTS).
- Gizarte eta kultura aldaketak globalizazioan (4 ECTS).
- Garapenaren teoriak, estrategiak eta neurketa (4 ECTS).
- Gizarte Zientzien ikerketaren hastapenak (6 ECTS).
- Garapenarako lankidetzaren sistema (4 ECTS).
- Generoa eta garapenerako lankidetzaren sistema (3 ECTS).
- Garapenarako lankidetzaren agenteak eta politikak (6 ECTS).
- Garapenerako lankidetzaren programak eta proiektuak (4 ECTS).
- Master amaierako lana (6 ECTS).
- Praktikak (8 ECTS).

Hautazkoak:

- Garazkak, Birgaitzea eta ekintza humanitarioa (3 ECTS).
- Garapenerako hezkuntza (3 ECTS).
- Giza eskubideak eta garapenarako lankidetzaren sistema (3 ECTS).
- Iraunkortasuna, Garapena eta Lankidetzaren sistema (3 ECTS).

HARREMANETARAKO

Arduraduna: Xabier Gainza Barrencua

Tel: 94 601 3639

Posta elektronikoa:

xabier.gainza@ehu.eus

Koordinatzailea: Izaskun Rodriguez

Tel: 94 601 7047

Posta elektronikoa:

izaskun_rodriguez001@ehu.eus

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



hegoa

INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
MAIZTEGIA LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURRUTIA KANAKETA INSTITUTUA



www.ehu.eus/eu/web/master/garapena-nazioarteko-lankidetzaren-masterra